

Euskararen etorkizuneko egoera

por **D. Jean Haritschelhar**

*Conferencia pronunciada
el 5 de octubre de 2004*

Esta conferencia fue patrocinada por Euskaltel
Hitzaldi honek Euskaltelen babesa jaso zuen

Forum Deusto

Euskararen etorkizuneko egoera

Jean Haritschelhar*

Urteak milaka igaro eta oraindik XXI. mendearen hasieran euskara bizi da, euskarak nahi du bizi, nahi du zabaldu bere eremua, nahi du erreberitu bere arnasa, beste hots bat eskainiz, beste aurpegi bat erakutsiz, euskara, beste edozein hizkuntza bezala, entzuten baita eta irakurtzen baita.

Luzaz, menderen mendetan, eta halakoa baitzen giroa laborarien edo nekazarien hizkuntza izana da, nekazarien eta artzainen hiztegia zela aberatsena, beste hiztegi bereziekin konparatuz. Hala laudatzen zuten Lizardik «Eusko-bidaztiarena» deritzan olerki eder eta hunkigarrian:

Larre lore

*Eder aunagu, mintzo yoria,
eder, berritan, garoz yantzia:
larre-loretik ezta
basotik euskal-mamia,
laister sortzen âl duk, Olerkaria!*

* JEAN HARITSCHELHAR (Baigorri, 1923) Letretan doktore da Ecole Normale Supérieure de Saint-Cloud eta Sorbonne-Parisen. Arlo profesionalean, irakasle eman zituen lehen urteak: 1952tik 1959ra Agen-eko lizeoan eta 1962tik 1986ra Bordeleko Unibertsitatean, espainiera eta euskara klaseak ematen zituela bertan. 1969an, Euskal Hizkuntza eta Literaturako katedradun izendatu zuten. 1962an ere, Baionako Euskal Museoko buru izendatu zuten. 1966. urtetik 1988ra bitartean euskaltzainburorde izan zen eta 1989an izendatu zuten euskaltzainburu. Besteak beste, Ikas, Euskaltzaleen Biltzarra, Société de Linguistique de Paris eta Euskal Kultur Erakundearen partaide da. Frantziako Hezkuntza Ministeritzako Conseil des Universités delako erakundearen batzordekide ere bada. Pizkundea, Iparraldeko Kultur Federazioa-ren buru.

Larre Lore: lore segurki, aspaldiko lorea, lurrari atxikia, larre izan dadien edo baso, artzainen eremua, bainan ere metaforaren bitartez adierazia, nekazariarena dela ere jauntzia dela lekuko: garoz yauntzia. Olerkariaren eskuetan dago, olerkariak bereganatzen baitu hizkuntza, hitzak josten besteek egiten ez duten bezala eta olerkia sortzen. Larreko mintzaira izan arren, haren senar amultsu bilakatzen da olerkaria, moldatzen duela bere «Maiteder», sehi erne bezain garbia izan dadien, emazte hitz berri ugaritsu seme-alabeen sortzaile aberatsa.

Garai latza

Ez dezagun ahantz bizi baldin bada euskara oraindik, salbatu baldin bada hiztunei esker izan dela, erakusten zutela ama-hizkuntzari zor zioten atxikimendua. Alabainan, xix. mendean eta xx. mendean bereziki frankismo garaian «makina bat erauntsi» bildu ditu euskarak. Hasi zen Frantzian iraultza garaian, iraultzale jakobinoen ideologian frantses mintzairak behar zuela izan batasunaren tresna, beste mintzaira guziak ezeztatuz eta segitu bi mende osoz eskolatik kanporatuz bereziki.

Gauza berbera gertatu da Espainian direla lekuko Erret ordena batzu, diotelarik adibide baten hartzeko: «*Maisu guztiek, saiatuki eta pedagogia zainduz, irakatsiko dute gaztelania, haurra, eskolan sartzen den lehen egunetik*» segitzen duelarik «*Maisuak beti gaztelaniaz mintzatuko zaizkie haurrei*».

xix. mendea da enetzat desberdintasunaren mendea. Aspaldi danik heldu zaigu desberdintasunaren ideologia: errege lehen, eliza gero, handikiak dudarik gabe jende xehea baino lehen. Bainan xix. mendean, Gobineau-ren arrazen desberdintasunaren ildotik eta kolonialismoaren ildotik agertzen dira goiko arrazak (zuriak noski) eta peko arrazak (edozein kolorekoak). Halaber izanen da hizkuntzentzat, goiko hizkuntzak (espainiola, frantsesa, ingelesa,...) eta peko hizkuntzak, deus balio ez dutenak, euskara haien artean.

Ortega y Gasset-ek zion 1932an: «*Estatu espainolak —eta bera da botere gailena— hizkuntza bat bakarra du, espainiera, eta hau da, ezinbesteko ondorioz, juridikoki, gailendu behar duena*».

Duela hamar bat urte ez du besterik egin Frantziak, aldatu duelarik bere Lege Nagusiaren 2. artikulua: «*Errepublikaren hizkuntza frantsesa da*», horrek adierazten duela frantsesa dela Frantziako hizkuntza bakarra, juridikoki balio duena.

«*Haga el favor de hablar cristiano*» delakoarekin ez du besterik egin frankismoak, debekatzen zuela euskaraz mintzatzea, debekatzen zuela ager zadien euskara kanpoan, egunkarietan, aldizkarietan, iragarkietan, jendeen izenetan.

Katakunbetako mintzaira zen orduan euskara, mendratua, apaldua, zapaldua, bainan halere bizi euskaldunen gogo-bihotzetan. Zer egin orduan? Jasan bainan iraun.

Aro berria

1975eko azaroaren 20an diktadore zaharrak bere azken hatsa botatzen du. Handik hiru hilabeteren buruan, hain zuzen 1976eko otsailaren 20an, espainiol gobernua biltzen da Bartzelonan eta erabakitzen du onartzen dituela Institut d'Estudis Catalans, Euskaltzaindia eta Akademia galega, Erret-dekretu batek, 1976eko otsailaren 26ekoak diolarik Euskaltzaindia dela Euskararen Erret-Akademia.

Hau da frankismoaren ideologiari uko egitea, argi eta garbi ezagutzuz badirela Espainiako erresuman beste hizkuntza batzu: katalanera, galegoa eta euskara, ofizialki onartuak.

Espainiako Lege Nagusiak gauzatzen du bi urte lehenago hartu den bihurgunea, erabakitzen duela 3. artikuluan lehenik gaztelania dela Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala, espainiol guztiek jakin behar dutena, haren erabiltzeko eskubidea dutelarik; gero beste paragrafoan Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izanen direla haiei dagozkien Autonomia Erkidegoetan.

Hona, beraz, nola legez ofizialdua den euskara. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Estaturuan 6. artikulua bermatzen du «*Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian, gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea*».

Horretan datza elebitasuna Euskal Herrian. Noiz holakorik Frantzia?

Bainan elebitasunaren egiazki finkatzeko beharrezkoa da Gasteizko Lege Biltzarreak bozka dezan lege bat, Estaturuaren garapenerako legerik oinarritzkoena, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko legea, 1982ko azaroaren 24koa. Labur bilduz lege horrek finkatzen ditu herritarren eskubideak eta botere publikoaren eginbideak edo eginbeharrak.

Bertzerik da Nafarroaren kasua: euskararen Foru-legea onartzen da 1986an. 2. artikulua dio gaztelania eta euskara berezko hizkuntzak direla Nafarroan eta, beraz, herritar guztiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea daukatela, bi hizkuntzak ofizialak direla bainan 5. artikulua hiru eremu finkatzen ditu, eremu euskalduna, eremu mixtoa eta eremu erdalduna, lehenbiziko bietan herrien zerrenda emanez.

Mugatua da beraz euskararen ofizialtasuna Nafarroan, halakorik ez dela ikusten Euskadiko Autonomia Erkidegoan, jakinik badirela eremu batzu, hala nola Ibaizabaleko ezkerrekoa erdalduna dela, bainan han bizi diren euskaldunek balia dezakete dituzten eskubideak.

Legea lege, elebitasuna osoa da Euskadiko Autonomia Erkidegoan, neurtua eta mugatua Nafarroan, ezer ez Iparraldean.

Geroari buruz

Lizardiren gana noa berriz ere, olerkariaren ametsak, bere baitan daukan utopia egun batez errealitatea bilaka daitekela, amets bideetan eramaten baigaitu.

Oro mintzo

Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aumat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zâr, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.

Amets-bideetan barna

Ez adi beldur, nere Maiteder:
baserriz landa nai aumat ager-
arazi, bazterrik bazter,
arroki; ezpaitun ezer
lurbiran ederrik; bezain eder!
Gogamenaren ezkon ez-antzu,
eztei ondoko bide diñagu.
Otoi, Yauna, ibilgo-buru,
maitasun-edermen-zitu,
aur begi-argirik anitz bekargu.

Amets-bideak osoki idekiak dira xx. mendeko euskaltzaleentzat, mende horren hastapenean sortzen baita aspaldian amestua zen hizkuntzari doakon erakundea: Euskaltzaindia.

Lanean hasi zenean 1919an bere arautegiko 6. artikuluari begira, galdegin zitzaien Campi3n eta Broussain euskaltzainei literatura hizkuntza batu bati buruzko txosten bat, ikusten baitzuen beharrezkoa zela bai hiztegian, bai joskeran eta bai idazkeran batasunerako bideen urratzea. Ez zen lortu orduan Ram3n Men3ndez Pidal eta Julio Urkixok hizkuntza artifizial baten sortzearen arriskua ikusten zutelakotz:

«Ezin zitezkeen gauzak aldiz lehen aurreratu, zeren hizkuntzari buruzko istudioak oraindik umatu gabe baitzeuden eta gizarteari zegokionez aldaketak nekez bereganatuko zituen orduan euskara erabiltzen zuen gehiengo baserritarrak, eta, batez ere, emandako arauak erabiliko zituen eskolarik ere ez baitzegoen».

Iritzi horrekin Euskaltzaindiak ez zuen burura eraman batasunerako xedea 1920 eta 1936 arte. Bainan ospatzea zoalarik bere urrezko ez-zeiak 1968an giroa ez zen lehengoa, ikastolak hasiak ziren, alfabetatze kanpainak erakusten zuen bazela euskararen alderako oldar haundi bat eta sekulan baino gehiago sendi zitekeen 1964eko Baionako biltzarra lekuko euskara batuaren beharra.

Ederki eta sakonki agertu zuen behar hori Koldo Mitxelenak ziolarik:

«Ezin bestekoa, il edo bizikoa, dela uste dugu euskera batasun bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta euskera idatziaren barrutian, irakasle-lanean dugu beharrik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura "ederrean" baino areago».

Euskaltzaindia agertzen da gidari eta bide-erakusle gisa, azaleko hauzietan lortuz lehenik batasuna, hasiz idazkera edo ortografiarekin, segituz morfologiarekin eta azkenik joskerarekin (*Euskera*, 1968, 203-204).

Bidea urratua da Arantzazun, sortuko dira beharrezkoak diren batzorde nagusiak: hiztegegintza, gramatika, dialektologia, onomastika eta azkenik literatura.

Labur bilduz, hiztegegintzan, orotariko euskal hiztegiaren xvi. eta azken liburukia agertuko da aurten edo datorren urteko hasieran. Lan ederra, altxor paregabekoa.

Gramatikan, sei liburu direla lekuko, izen morfologiaren ondotik, aditza batu da eta joskeran murgilduak dira batzordekideak.

Dialektologian, inkestak bukatuak dira (2.800 galdera 145 tokitan), 4.000 orduko grabazioak, lehen liburukia agertzekotan dela aurtan.

Onomastikan kaleratuak dira Euskal Izendegia, gizasemeen izenena eta ponte-izenena, herri eta herritarren izenena Euskal Herri guztian, ahantzi gabe Euskal deituren izendegia Espainiako gobernua eta Eusko Jaurlaritzak babesturik kaleratua.

Ez dut batere baztertuko Literatura batzordearen lana. Laster agertuko du Estilistikako hiztegi bat, beharrezkoa dena erakaskuntzan. Batzordeari esker eginen dira bai Biltzar nagusi batzu, bai eta ere Jardunaldiak. Liburu gotor batzu kaleratu dira haien artean direla, adibide gisa, Oihenarti buruz egina (700 orrialdekoa) eta Anton Abbadiari eskainia haren hiltzearen mendeurrenkarietara.

Hemendik aitzina, ikusirik zertan dagoen Euskaltzaindia bere ikerketetan erakutsiko dizuet ene ustez zer izan ditezkeen egin beharrrak. Helburua hauxe izan daiteke:

Normatibizazioa

1968an Euskaltzaindiak urratu duen bide luze haretan gaude oraindik. Euskara batua ez da osoki finkatua, baina euskara baturantz goaz segurki, beharrezkoa delakotz ikusi dugun bezala. Erran nahi dut segitu behar dela jadanik hasia den lana bereziki alor hauetan.

Hiztegi gintza: Orotariko Euskal Hiztegia bukatzekotan dago. xvi. liburukiaren manuskritoa Madrilan dago, frogak beharko dira korregitu eta espero dut aurtan agertuko dela. Baina argi dago zer den hiztegi hau. II. liburukiaren aitzin-solasean Ibon Sarasolak definitzen du obraren helburua, Koldo Mitxelenaekin maiz aipatu zuena.

«Orotariko Euskal Hiztegiak garai, toki eta mota guzietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da beraz, eta ez arau-emailea, ez normatiboa.»

Argi eta garbi dago zer den xvi. liburukiko lana eta ere zer ez den. Euskal literaturan agertzen diren hitz guzikiak biltzen ditu edo saiatu da biltzera. Ondare bat beraz, lehenbiziko urratsa eta ez tipia beharrezkoa den oinarria. Euskaltzaindia ez da arau-emaile izaiten ahal dio Sarasolak *«arau-gaiaren alderdi guztiak aski zehazki aztertu ahal izateko argibideak ez dituen bitartean»*. Eta segitzen du idatziz: *«Hor kokatzen da, gure ustez, orain aurkezten ari garen lan honen egitekoa»*.

Hiztegi batuarekin hasi da Euskaltzaindia arau-emaille izaten. Derragun lehenik ortografia hiztegia dela, jakinik ortografia dela euskaldun guztiak biltzen dituen tresna, urrats bat gehiago euskara baturantz. Bainan hautatu dira hitz batzu, alde bateko eta besteko euskaldunak batzen gaituzten formak hobetsi dira. Bestalde *Bizk*, *Ipar* eta *Naf*, *Gip*, *Heg* ikurrekin agertzen diren hitzak dira amankomunak ez direnak, euskalki batean erabiliak. Ikurrarekin salatzen da nondik datozen, bainan denbora berean hiztegi batuan sartzen dira adierazten baita erabilgarriak direla, idazleen eskuetan daudela. Batzuetan bi hitzen artean hobetzen da bat, agertzen da ere zaharkitua dena gutxi erabilia dena, sinonimoak eta antonimoak ematen direla ere kasu batzuetan.

Hona, beraz, anitz urtetako lana, bigarren itzulia hasia delarik *b* letran dagoela oraindik Euskaltzaindia. Bainan pentsa dezagun lehen itzulian 23.000 hitz hartu baldin baziren, beste hainbeste edo gehiago izanen direla bigarrenean eta beste itzuli batzu segurki izanen direla. Beste lan bat ere bideratzekotan dago: hiztegi espezializatuak, hala nola zuzenbidekoa, zientzietakoa, erakasle espezializatuekin harremanak ukan-eta, jakinik jakintsuen aholkuak beharrezkoak dituela Euskaltzaindiak. Lan horiekin irakaskuntzak behar dituen hitz berriak euskararen bultzatzeko eskoletan eta unibertsitateetan hain zuzen ere, sartuko dira Hiztegi batuan.

Hiztegi gintza baldin bada Euskaltzaindiak duen helburuetarik premiatsuena, bere xedeetan dauka Hiztegi orokorra bukatua izanen delarik, Euskaltzaindiaren hiztegiari lotzea, euskarazko hiztegia zuzen den bezala. Hastapen bat izan daiteke Hiztegi batuan sartuak diren hitzak hartzea, beren erran-nahiarekin eta behar diren adibideekin orniturik.

Urrunago joanez beharrezkoak dira ere beste lan sakon batzu, euskararen altxor osoaren egiteko, hala nola egiten ari den Espainiol Akademian, hala nola egina izana den Frantzian *Le trésor de la langue française* deritzanarekin. Hortakotz ezinbestekoa da euskarazko hitz guztiak biltzea, biltze sistematiko bat eginez Euskal Herrian agertzen diren liburu, egunkari, aldizkari guztietan, inkestak eginez eta baliatuz hiztegi espezializatuak (zuzenbidea, zientziak, kirolak, eta abar...).

Ikus daiteke baduela lan Euskaltzaindiak, bainan nahi bada euskara izan dadien beste hizkuntzen parekoa, baliagarria izanen den tresna modernoa, oraiko biziari doakona, holako lanak, holako ikerketak baitzepadakoak dira. Gogoan datxikagun Oxobi olerkariak asmatzen zue-na Axular maisuari eskaintzen zion olerkian:

*Lagunak ez lokar
Aditurik elkar
Dugun euskara sar
Eder, jori, azkar,
Orotan!*

Gramatika orokorra da ere Euskaltzaindiaren helburu bat. Errandut jadanik zer lanetan murgildua den Gramatika batzordea. Menderakuntzari buruzko hirugarren liburuaren sortzen ari da, aditz-jokatugabea duten mendeko perpausen liburuarena, *EGLU VII*.na. Joskerako gaiak behar ditu ongi aztertu eta bururatu datozen urteetan. Lan horren egiteko baditu ongi moldatuak diren ikerleak, gehienak ez baldin badira denak Unibertsitateko irakasleak edo katedradunak. Pentsa dezagun holakorik ez zitekeela egin duela mende erdi bat, al-diz orain bai Euskal Herriko unibertsitateei esker. Lehen, atzerrietako irakasle-ikerleak nagusi ziren gramatika alorrean. Orain Euskal herriak berak sortu ditu eta moldatu bere ikerleak beren istudioak egini edo hemen bertan edo atzerrietako unibertsitateetan. Ez ote da atsegingarri?

Bainan urrunago joan behar da datozen urteetan. *EGLU*, euskal gramatikaren lehen urratsetarik harat beste urratsak abiatzekotan dira. Euskararen ondasuna bildu eta sistematizatu ondoren euskara batuaren normatibizazioari buruz jokatu behar du Euskaltzaindiak. Hortakotz asmatu du idaztea EGO euskal gramatika orokorra, pentsatuz jadanik bateratze bidean egin diren urrats garrantzitsuak: deklinabidea, erakusleak, aditza (aditz laguntzaileak, trinkoak eta hitanozko formak). EGOrakin euskara batuak ukanen du baitezpadako egitura Euskaltzaindiak eskainia idazleei, kasetariei, komunikabideetako langile guztiei eta, dudarik gabe, hezkuntzan ari diren irakasle guztiei.

Dialektologia batzordeak EHHA (Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa edo hobeki erran Euskararen Herri Hizkeren Atlas) du helburu. Bilketa eginik jadanik aipatu dudan bezala, bai liburutan doazkon mapekin, bai CD-Rometan agertuko dira inkestaren emaitzak. Obra baliosa, munta haundikoa, nehork eginen ez zuena ez balu Euskaltzaindiak hartu bere gain. Orotara 10 liburuki izanen dira, kolorezko mapa bakoitzak komentarioz orniturik, lehen liburukia laster agertuko dela laugarren liburukiko mapak eratzen ari direlarik.

Jadanik anitz ikerleak baliatu dituzte EHHaren datuak beren tentsizat: azkenean, oinarri orokorra izanez hizkera edo euskalki bakoitzari eginen diren ikerketen abiapuntu baitezpadakoa izanen da. Nahiko eremu zabala idekitzen da ikerleentzat.

Paradaz baliatzen naiz errepikatzeko nehork ez duela Euskaltzaindiak baino gehiago egin euskalkien alde EHHaren emaitzarekin. Ordu zen; bere garaian, Euskaltzaindiak jakinarazi du euskara batua ez zoala euskalkien kontra. Hor dira lekuko Orotariko euskal hiztegia, Hiztegi batua euskalkietan oinarritzen dena, gramatikak biltzen dituelarik euskalki guztietako adibideak eta azkenik ESHA. Berrikitan, 1970ko adierazpena emendatuz, Euskaltzaindiak bere Jagon sailari esker erakutsi du zer izan zitekeen euskalkien lekua euskaldunen eguneroko bizian. Gure unibertsitatetako ikasleek beharko dituzte euskalkiak ikasi, nahi baldin badituzte literaturaren idazleak irakurri eta aztertu. Azken adibide bat: zuberotar pastoralak, hain bereziak direnak, zubereraz idatziak eta jokatuak izanen dira atzo bezala bihar ere.

Onomastika batzordea beharrezkoa da behar den bezala finkatzeko, orain arte egin duen bezala toponimia, exonimia, euskal deituren grafia, izen eta ponte izenak.

Lan asko badu oraindik egiteko: hala nola agertu dituen Euskal Herri osoko herri eta herritarren izenak, baitezpadakoa da sar dadien toponimia xehean, auzo, kartier, mendi, muino, erreka eta abar... Euskal Herriak ukan dezan bere toponimia osoki finkatua.

Exonimian, erran nahi baita mundu guziko toponimia finkatuz, opari eder bat eginen dio euskaldun jendeari eta bereziki kasetariei, ahantzi gabe historia eta geografia irakasten dutenei. Urrats handi bat izanen da euskara batuarentzat eman ez atzerrietako toponimoei doazkon grafia, eta grafiaren bitartez ahoskera.

Beste egitasmo bat ere badu Onomastika batzordeak: ECO deitzen da, Euskal Corpus Onomastikoa. Helburutzat dauka onomastika alorreko ikerketa, txosten, irizpen, gomendio eta arauak eman aurretik, aztertu behar diren lekukotza dokumental guztiak datutegi bakar batean biltzea, erran nahi baita ponte izenak, deiturak, toponimoak nahiz exotoponimoak, lau atal nagusitan biltzea. Izen horiek guztiak dagokion tresneria baliatuz digitalizatuko dira eta behar diren irizpen, gomendio eta arauen eskaintzeko tresna baliosa eta segurua izanen da ECO. Badakigu horretaz kezkatuak direla euskaldun asko. Lekuko Euskaltzaindiaren web gunean egin diren bilaketak joan den uztailen:

- Ponte-izenak: 78.842
- Deiturak: 3.564
- Herriak: 2.696
- Mendiak: 1.000

Zenbaki horiek adierazgarriak dira.

Bukatzeraz doalarik bere Estilistika lexikoa beste xede batzuz hartuko ditu Literatura batzordeak. Lehenik, kontutan harturik Estilistika lexikoa ukanen dituen kritikak irakurleen gandik etorriak, ez da dudarik beharko direla zuzenketak egin, hutsak bete, 600 hitzeko lexiko horrek ez baitituzke denak osoki landu. Beraz, arrakastarik baldin badu lexikoak, beharko da bigarren edizio bat apailatu.

Bigarrenik ekitaldi bereziak prestatuko ditu literaturaren inguruan, bai jardunaldietan, bai kongresuetan. Adibide baten emaitetako nahi luke 2005ean egin omenaldi bat Esteban Urkiaga Lauaxeta olerkari zenari Mungian. Omenaldi horiek egitean oroitarazten da badela euskal literatura bat, literatura horrek ukan dituela langile onak, idatzi dituzten obrak merezi dutela irakurtzea eta aztertzea, behar diren kritikak eginez.

Anartean, jadanik urtero egiten duen bezala, Literatura batzordeak izendatzen ditu bere baitan hartuz Euskaltzaindiak eta BBK-k sortu dituzten sarien epaileak: Txomin Agirre saria eleberrientzat, Felipe Arrese Beitia olerkariarentzat, Toribio Alzaga antzertiarentzat eta Mikel Zarate saioarentzat. Azpimarratu nahi nuke badela beste sari bat haur eta gazteentzat sortua: Resurrección María de Azkue saria. Anitz ikastetxetako ikasleek parte hartzen dute. Saria horren garrantzia da haur eta gazte horietan izan daitezkeela biharko idazleak. Hori da Euskaltzaindiaren ametsa, BBK-rekin luzaz harremanen atxikitzeko xedea baitu.

Euskarak, hizkuntza gisa, segitzen du Euskaltzaindiak erakutzi dion bidea. Euskara batua ez da izanen batzuk zioten bezala hizkuntza artifizial bat. Euskalkietan oinarritzen da, euskalkiek amankomunean dituzten hitzak dira egiazko sustraiak eta gero sartzen dira euskalkiek dituzten hitz bereziak, sinonimo gisa agert daitezkeenak edo beren zapora edo gustua daukatenak. Nola bazter horiek?

Egia erran azken mende laurden honetan argitaratzen da urtero azken bost mendeetan baino liburu gehiago; denetarik bada: literaturari dagozkionak, zientzietan (fisika, kimika, matematikak eta abar), zuzenbideari, erlisionari... Horrek erakusten du gure herria bizi dela, baduela orain egunkari bat, astekari eta aldizkari euskaldunak, herritarrek badutela euskaraz irakurtzeko parada egunero.

Gehiago dena euskara batua —nahiz ez den osoki finkatua— idazle gehienek bereganatu dute baitakite irakurle gehiagori buruz jokatzen direla. Azpimarra dezagun ere bai olerkari, bai eleberrian eta bai haur-literaturan sari haundiak ukan dituztela euskal idazleek Madrilan,

horretan neurtzen baita idazleen kalitatea eta dudarik gabe haien hizkuntza. Sarituak izan ez direnetan badakigu badirela idazle bikainak, euskarari ohore egiten diotenak. Gero eta gehiago itzuliak dira beste hizkuntzetara, ez bakarrik gaztelerara, baina frantsesera, ingelesera eta beste... Doztela aurrera euskararen onerako.

Normalkuntza

Euskaltzaindia euskararen zaintzeko eta bultzatzeko erakundea da. Jagon saila horretarako egina da eta betetzen du bere eginbidea. Ikusi dugun bezala euskalkien beharra eta haien eremua finkatu du. Inkestak egin eta egiten ari da neurtzeko euskarak daukan lekua elizan (Baionako eta Iruñeko diozesetan azken bi urteetan eta Gasteizkoan aurten).

Euskarak ez du egoera berbera Euskadin, Nafarroan eta Iparraldean. Euskaltzaindiaren joka moldeak ez dira, beraz, berak izanen hiru eremu horietan. Badu orain hamar urte Euskaltzaindiak galdegin diola ofizialtasuna euskararentzat frantses gobernuari eta berrikitan errepikatu du galde berbera. Ez dut uste erantzunik ukanen duen.

Nafarroan bildu zen Euskaltzaindia ikusteko zertan zagoen euskara eta adierazpen bat kaleratu zuen erranez bere helburuetan bazela «*euskararen eskubideen jagotea, erabilera bultzatzea eta hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea*» eta salatuz bereziki Nafarroako gobernuaren 2000ko abenduaren 11ko Foru dekretoa. Ildo beretik joanez gauza bera egin du Nafarroako euskararen aholku batzordean eta Nafarroako Foru Parlamentuak deiturik mintzatu da Nafarroako ordezkaria azpimarratuz nola Euskaltzaindiak 1979tik honara adierazi zuen bere kezka Nafarroako Gobernuaren aitzinean, nola bozkatu zuen 2003ko otsailaren 10eko Foru dekretorekin kontra aholku batzordean.

Ez da ixilik egoiten Euskaltzaindia eta segituko du bide beretik euskararen eskubideak gaitzetsiak izanen direlarik.

Normalkuntza ez da bakarrik hizkuntzaren zaintzea, da ere erabileraren bultzatzea. Horretan Nafarroa eta Iparraldea gibelatuak dira, Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, gauzak hobeki doaz.

a) IRAKASKUNTZA

Nahi ala ez, oztopo guztien gainetik haurren artean euskara goiti doa, emeki emeki, bai Nafarroan (%25 D ereduan) bai Iparraldean (%24-25 D eta B ereduan), jakinik urtero haurren kopurua emendatzen

dela. Iparraldeak ezagutu duen beherekada bukatua da eta gorakada hasia da hiru urtetarik eta 20 urtetara. Esperantza ttipi baten mentura. Ikastolari esker sendi daiteke aldakuntza hori. Nafarroan ere, hain zuzen Tuteran eta Lizarrako ikastolekin adibidez.

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindari agertzen da. Haur hezkuntzan %62,3 D eremuan eta %28,8 B eremuan, A eta X ereduak %9 bakarrik daukatela. Lehen hezkuntzan %53,6 D eremuan, %30 B eremuan eta %16,4 A eremuan. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan oraindik gehiengoak atxikitzen dute (bi heren) D eta B ereduak, baina Batxilergoan senditzen da beherekada B eredia desagertzen baita %2,6a, A ereduak duela gehiengoak.

Nahiz Euskal Herriko Unibertsitatean eta Deustukoan euskarak eta euskal irakaskuntzak baduten beren tokia ez da dudarik gehiengoak doala erdarara. Kezkagarriagoa ene ustez da haurren kopuruaren beherekada ikaragarria. Pentsa dezagun duela hogei urte (1984) 40.000 haur sortzen zirela Euskal Autonomia Erkidegoan eta orain 16.000 bakarrik. Zer gero edo etorkizun mota sortzen ari da? Ez ote da ahulezia baten seinalea?

Halere konparatuz atzoko datuekin, neurt daiteke nondik nora doan euskal gizartea.

	X	A	B	D
1983-84	%13,6	%65	%8	%14
2003-04	—	%31,5	%24	%44,4

X eredia desagertua, A azkarki ttipitua, B eta D ereduaren gorakada nabarmena bereziki D ereduarentzat. Epe ertaineko (20 urte) emaitzak epe luzerako norabidea erakus dezake.

b) KOMUNIKABIDEAK

Hemen ere epe ertaineko fruituak behar dira dastatu. 1982an sortu zen Euskal Telebista, euskaraz lehenik, gero erdaraz. Pentsa daiteke erdarazko gateak baduela ikusle gehiago, baina euskaldunek entzun eta ikus dezakete euskarazko emankizunak. Gehiago dena *Euskal Telebista* hedatua da Euskal Herri osoan eta lekuko naiz ikusia dela Iparraldean. Emeki emeki ohitzen ari da jendea telebistak hedatzen duen euskarari. Hortan ere, komunikabide guztietan bezala datza euskara batuaren erronka, jakinik euskalkiek ere beren tokia badutela.

Gauza berbera gertatzen da irratiarekin: 24 orduz egunean euskararen entzuteko ahala. Zer aurrerapen ikaragarria mende laurden batez.

Prensa euskaldunaren tokia zabaltzen ari da. Iparraldean *Herria* astekariak 60 urte ditu, Nafarroan ere sortu dira astekariak. Hor dago *Euskaldunon egunkariaren* ondotik *Berria*, irakurleak baduela egunero irakurtzeko parada. Beste egunkarietan euskara xuhur: *Garan* %20a, *Deian* %6a eta are gutiago besteetan.

Aldizkarietan badira oso espezializatuak direnak eta laguntza haundi bat egiten diote euskarari, orain arte ez baitziren alor horiek iker-tuak.

Jadanik aipatu dut liburugintza bainan nahi dut azpimarratu ez dela sekulan hainbeste liburu agertu, ez dela sekulan hainbeste idazle izan eta kalitatekoak, denbora berean ere hainbeste irakurle, Durangoko azoka dela lekuko, hau baita liburu azoka nagusia, beste batzu egiten direla Euskal Herrian hala nola Saran. Ez zen holakorik duela mende laurden bat.

c) EUSKARAREN ERABILERA

Demagun, bana beste, heren bat euskaldun badela Euskal Herrian, euskaldunen kopurua goiti ari dela, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan, egiazko hizkuntza politika batek bultzaturik. Hortarako «Euskara Biziberritzeko Plan Nagusi» bat bidean ezarri du, erakunde publiko zein pribatuetan lanean ari diren jendeen euskalduntzeko. Alabainan jende gehienak erdaldunak dira eta Euskararen legearen arabera badute euskalduntzeko ahala. Alfabetatze kanpainak egin dira, Barnetegiak sortu, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotuz. HABE (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) sortuz gero artoski ari da bere eguneroko eginbideen betetzen. Derragun halere berreuskalduntzeko lana, lan luze eta dorpea dela epe luzerako erronka dela.

Badakigu Iparraldean euskararen erabilera ttipia dela orotara %5ez petik, salbu barnealdean, Nafarroako egoera ez dela askoz hobea eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere gaztelaniaren erabilera dela nagusi toki eta erabilera-eremu gehienetan, nahiz ohiko erabilera %15etik gorakoa izanez, egunetik egunera haunditzen ari delarik. Halere argi eta garbi dago enpresa haundietan euskara gutxi erabilia dela, gehiago dudarik gabe enpresa ttipietan ikusiz non diren kokatuak, gehiago ere saltoki, jatetxe eta tabernetan kontutan hartuz hiri haundietan edo he-

rrri txikietan dauden ala ez. Euskal Herriko hiri nagusiak erdaldunak dira orobat Bilbon eta Baionan %9ra heltzen direla euskaldunak eta araberako datuak direla Iruñean eta Gasteizen.

Bi euskaldun mota ditugu Euskal Herrian: lehenik euskaldunak direnak sortzez, erran nahi baita aitamen gandik ikasi dutela hizkuntza edo bederen guraso baten gandik, euskara dela etxean erabiltzen den mintzaira, auzoekin halaber eta lagunartean ere. Besteak dira eskolan ikasiz euskaldundu direnak, etxeko mintzaira erdara delarik. Merezimendu bereziak dituzte gazte horiek eta txalotzen ditut. Ene uste apalean haien baitan datza euskararen geroa, zeren eta eskonduko direlarik pentsa daiteke nahiko dutela ukanen dituzten haurrak euskaradunak izan ditzen. Azken finean, euskarak behar baldin badu bere bidea egin, herenetik %40era joan, hortik %50era, orduan, bai, aiseago izanen da euskaldunen kopurua gehitzea. Oztopo bat ikusten dut eta errepikatzen dut: haurren kopuruaren beherakada Euskal Herrian eta erran nezake bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan. Alabainan sortzeak 40.000ko bat ziren duela hogeitun urte, orain 16.000 dira bakarrik. Beherakada ikaragarri hori lanjerosa da, arriskuz betea ez bakarrik hizkuntzarentzat, bainan ere ekonomiarentzat.

Dakigularik euskaldunen kopurua gehitzen ari dela emeki emeki, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan, izan daiteke baikorra geroari buruz, belaunaldi berriaren hurritzea ez delarik seinale ona.

Azken hitzak

Badu orain 42 urte euskaltzain oso naizela; aski zaharra naiz neurtzeko zer aldaketa ezagutu dugun Euskal Herrian. Iparraldean gero eta jende gehiago agertzen da euskararen alde. Ezagutu den beherakada gainditua da eta D eta B erduei esker ikasleen kopurua haunditzen ari da. Seinale ona. Nafarroan hizkuntza borrokak segitzen du, ikastolek hedatzen dutela euskararen eremua eremu mixtoan eta erdaldun eremuan.

Euskal Autonomia Erkidegoan datza euskararen geroa. Euskara ofiziala da, behar diren legeak onartuak dira, bideak zabalduak eta ordokituak dira euskararentzat, ez dira xendra patartsu eta harritsuak Nafarroan eta Iparraldean bezala. Legeak ahal guztiak emaiten dizkio euskotarrari, erran nahi baita Euskal Herrian bizi denari, izan dadien euskaldun ala erdaldun, lehenarentzat bere hizkuntzaren erabiltzeko non nahi, bestearentzat bizi den herriko mintzairaren ikasteko. Denek behar dute gogoan

hartu euskara Euskal Herriko ondaretarik premiatsuena dela, frantsesa edo gaztelania baino zaharragoa dela pre-indoeuropearra izanez eta, beraz, errespetu berezia merezi duela ez baita bakarrik Euskal Herriko ondarea, mundu osoko ondarea dela ere.

Berriz ere, errepikatuko dut, Euskaltzaindiarekin batean, euskara denena dela, euskaldunena noski, bainan ez haiena bakarrik, erdaldunena ere Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala delakotz gaztelaniarekin. Denena dela diodalarik diot politikaren gainetik dela, ez duela alderdi batek bereganatu behar, beste batek haizatu, denek eginbidetzat behar lukete hartu euskararen zerbitzatzea balio haundiko ondarea delakotz.

Duela lau mende eta erdi baino gehiago Etxepareko Bernat Nafarroa beheko olerkariak, 1545ean hain zuzen, oihu batzu bota zituen: «*euskara jalgi hadi kanpora, plazara, mundura, mundu guzira*». Mezua entzuna izana da xxi. mendearen hasieran, kanpoan baitago, kalean, plazaetan, mundu guzian komunikabideei esker, telebista hedatzen baita izarbelen bitartez.

«Sautrela» deritzan olerkian idatzi zuen ere: «*Euskaldun den gizon orok altxa beza buruia*» eta manu hori ez doa hizkuntzari buruz bainan bai jendeei buruz. xvi. mendean buruaren altxatzea zen goraki erraitea eskriba zitekeela euskara, xxi. mendean burua altxatzea da euskara erabiltzea egunero, edozein tokitan, etxean, kalean, lantegietan, eskoletan, unibertsitateetan, Lege Biltzarrean, erakutsiz gai dela euskara gauza guzientzat, beste edozein hizkuntza bezainbat dela eta merezi duela denen errespetua.

Ikusiz mende erdi batez euskarak egin duen bidea argi dago baiko-rra naizela, jakinik halere bidea luzea izanen dela oraindik Euskal Herri ideal batetara heltzeko euskotar guziak euskaldundurik egiazko elebitasunaren ametsa delarik. Euskaltzaindiaren gidaritzapean euskara bat-
tuak bilduko dituelarik zazpi hegaletako euskotar euskaldunduak, bai euskarari denek oihu eginez, duela 25 urte Euskaltzaindiak oihukatu zuen bezala, orduan, zinez, euskara salbatua izanen dela. Hala biz.

